




Mikel Saez de Urabain



■ Droites ipar paretan neguan. Tournier espaloian krokisa

Droites ipar paretan - Tournier ertza

SENTITU al duzue inoiz eskalada bide bat burutu eta memorian iltzatuta geratzen zaizuela? Urteak pasa eta desio hori gutxitu arren, handitzen doala? Azkenean helburu garrantzitsu bat bihurtzen da zure eginbeharretan. Momentua iristen denean gainera ez da batere erraza burutzea, asko borrokatu behar duzu, ez da opari bat, sari bat baizik. Eta bat-batean egina dago. Ez duzu gehiago igo beharrik. Zutik eta geldirik ingurura begiratzen duzu zerbait jasotzeko asmoz. Lasaitasuna da sentitzen duzun sententzia bakarra, zure buruarekiko askatasuna.

Klaudio Rey izan dut soka-kide. Argentinarraren eskalatzaile hau askotan izan baitut sokaren beste muturrean. Berak ez zuen Tournier helburutzat, Alpeetan eskalatu nahi zuen eta berdin zitaion bide hau edo besteren bat eskalatzea. Niregan konfiantza osoa zuen eta horregatik eskertzen diot nirekin haitz eta izotzeko paretan honetara etortzea.

Arestian esan dudana bezala, ez da batere erraza paraje hauetan jarduera bat burutzea. Momentu bat iristen da, non dena kontra jartzen zaizula pentsatzera iristen zaren: eguraldia, bidearen baldintzak, aukeratu duzun materiala, egoera fisikoa... eta abar. Gure kasuan ez zen desberdina izan, arazo logistikoak medio dudak izan genituen.

Chamonixen geldituak ginen. Ni Euskal Herritik iritsi nintzen eta Klaudio Errusiatik, San Petersburgotik hain zuzen ere, une horretan bertan baitzen lanean. Bere hegazkinak arazoak izan zituen eta bost orduko atzerapenez iritsi zen Chamonixera. Hasiere batean ez dirudi atzeratze honek garrantzi handia izan zezakeenik honelako jarduera bat burutzeko orduan, baina kontuan izan behar dugu sei eguneko irteera baten aurrean geundela eta eguraldi iragarpenak bolada onaren amaiera amaiera erakusten zuela hiru egun barrurako. Beraz, egun bat galdu genuen. Aurretik bi egun on genituen eguraldi aldaketa gertatu baino lehen. Beste

arazo bat ere suertatu zitzaigun, Klaudio materiala erosi behar baitzuen eskalada egin ahal izateko. Arratseko azken orduan iritsi zenez, denda guztiak itxita zeuden. Hurrengo goizean, dendak zabaldu arte itxaron behar izan genuen dena prestatuta izateko. Faktore hauek guztiak kontuan hartuz eta logika ariketa batzuk egin eta gero, emaitza teorikoak dezimal asko zituen. Behar-beharrezkoa genuen estrategia egoki bat dezimal horiek zertxobait murriztu ahal izateko. Horrela, aterpetik pasa gabe, zuzenean horman sartu beharko genuke, gauak harrapatzen gintuen lekuan lo egin, hurrengo egunean gailurrera heldu eta jaisteko. Simplea eta ulerterraza. Goizeko bederatzi eta erdietan Grands Montets teleferikoa hartu genuen eta eguerdian paretan azpiko errimaia pasatzen ari ginen.

Glaziarretik sokaz lotuak gindoazela beste eragozpen bat izan genuen, hots, argazki-kamera digitala izorratu zitzaigun. Ez zen berria eta dagoeneko hotz eta bustialdi ugari pasata zegoen. Hala ere, hartu nuen amorrua izugarria izan zen. Makina horrenbeste ordaindu eta hain gutxi irautu! Gaur egungo tramankuluak iraupen eskaseko teknologiaz osaturik daude. Klaudio bere reflex-kamera astuna hartu ez zuenez, argazki-kamerarik gabe geunden, glaziarrean ateratako hiru argazkiak soilik nituen.

Lerro hauek idaztean duda-mudak izan ditut. Tankera honetako igoera batek *Pyrenaica* moduko aldizkari batean lekurik baduela pentsatu izan dut, baina argazkirik gabeko kronika bat herren gera daitekeelakoan ustean nago. Nire artxiboetan begiratzen, paretaren neguko argazki batzuk aurkitu nituen eta halako bat erabiliz artikulua hau bideratzea erabaki nuen.

Argazkiak lekuko gisa erabiltzen dira. Askotan ere igoerak egiaztatzeaz azaldu behar izaten dira. Nik gertakariaren kontaketa hutsa erabili behar dut irudi horiek zuengana ekartzeko, bestela, norberak jarri diezazkiola forma eta kolorea irudimenez. Norbaitek igoera honi buruz zalantza balitu, prest nagoke datu zehatzagoak

azaltzeko. Hiru argazki aukeratu ditut, paretako pasarte desberdinak dira eta hirurak bide honen aniztasunaren adierazle.

Lehen argazkian, saia zaitzete laranja kolorezko granito haitzez osatutako jendarme handi bat irudikatzen. Perspektiba horizontal batetik ari gara begiratzen. Arrakala fin batek hausten du jendarmea beheko partean, ezkerretik eskuinera. Marra honek adierazten digu bidea. Bi iltze daude arrakalan kokatuak eta biak daude soka koloretsu batez mosketatuak. Soka honen muturrean eskalatzaile bat loturik ageri da motxila handi bat bizkarrean duelarik. Hatzak arrakalan sartuak ditu eta katu-oin gorriak modu itsasgarrian haitzean erantsiak. Ez zaio urduritasuna aurpegian nabaritzen, oraindik bide luzea aurretik izan arren. Momentuaz gozatzen ari da, inguruarekiko harremanaz.

Bigarren argazkia, berriz, ez da hain argitsua. Hurrengo egunean ateratakoa baita, bibaka egin eta gerokoa. Goizean goizetik zeruan agertu diren lainoek adierazten dute eguraldi aldaketa datorrela. Paretaren bigarren partean gaude, laiotzagoa suertatzen den inguruan. Hemen izotza ageri da. Zeharkaldi batean, hirurogei graduko korridorean, eskalatzailea

ageri da eskuetako bi pioletak izotzean sartuak dituela. Kranpoiak ere ondo kokatuak ditu, eskuek eta hankek irudizko ixa bat osatzen dutelarik. Motxilak oraindik ere astuna dirudi. Friend hori bat dauka sokaz mosketatua. Aurrekoarekin alderatuz, aurpegian freskotasuna falta zaio, nekea nabari da.

Hirugarren argazkia goitik behera ateratakoa da, ekaitza pasa eta gerokoa. Behean, ertzean, laino artean eskalatzaile bat dago haitzaren gainean eserita. Ondoan elurra dauka. Soka-kidea aseguratzen ari da. Nahiz eta urrun egon, aurpegiko aztarnak nabaritzen zaizkio. Nekea eta urduritasuna dira. Une batzuk lehenago izan ditugun tximista eta kazkabarrak barruraino sartu zaizkio. Mendi argazkigintzaren aldetik perspektiba txundigarria da, alpinistaren ametsa. Laino artean airean zintzilik gailurreraino doan haitz eta elurrezko ertz batean, denborak ezabatuko dituen arrasto batzuk.

Puntan hotz egiten du. Mont Blanc eta Jorasses mendi garaiak estaliak daude. Egunaren azken orduak dira. Jaisteko bidea ez dugu garbi. Lainoa pixka bat desagertzen hasi denerako arrastoak sumatu ditugu Telefreako glaziarrerantz. Rappel motz bat egin eta arrastoetara iritsi gara. Kontu handiz beherantz hasi gara. Haitzetara iristean gauak irentsi gaitu. Oso

bertikala ez izan arren, rappel bidez jaitsi behar izan dugu bidearen zati hau. Gauaren eta rappeletan sokak trabatzeko arriskuak, beste bibak bat egitera bultzatuko gaitu. Bihar eguraldia lagun izatea espero dugu. Lo-zakuaren berotasunean amets egin dut.

Mendiak igotzean, bizitzeko era bat bihur daiteke. Denbora pasatzen doan eran, esperientzietan aberatsagoak bihurtzen gara eta beste mundu paralelo bat badagoela sinesten. Beste aldera pasatzea lortzen duzun eran, estresa, amore txarra, bizitzeko nekea desagertzen dira eta laguntasuna nagusitzen da. Elkartasunaren mundu paralelo bat dago haitzaren kontaktuan, elurraren gardentasunaren barruan. □

■ *Klaudio Argentierreko glaziarrean*



ARGAZKIAK MIKEL SAEZ DE URABAIN

Aspektu teknikoak

GAUR egun eskalaten den bidea, ipar-ekialdeko ertz zuzena da. C. Deck eta S. Jouty 1970 urtean zabalduakoa. Bariante hau 3384 m punta deritzon muinoraino doa eta haitz eskalada da nagusi. Bide originala berriz 1937 urtean zabaldu zen. Aipatutako puntara era mistoan iristen da ertzaren ezker aldean dagoen kanal batetik. 3384 m puntatik aurrera bi bideak batera doaz. Urtearen arabera, bigarren parte honetan izotz gehiago edo gutxiago topa dezakegu. Guk nahiko lehorra aurkitu genuen. Izotz eta misto izan behar zuten luze batzuk lehorrean eskalatu genituen, harri eta bloke aske tartekak gaituz. Zailtasun tekniko handiak ez dituen arren, Mont Blanc aldeko eskalada onenarikean artean sailkatua dago. Arin eskalatu gero, egun luze batean egin daiteke. Motxila astunekin kontua beste era batekoa izaten da. Eskalada urratsak neketsuagoak gertatzen dira eta abiadura moteltzen denez, bibaka egitera derrigortzen zaitu. Gaua pasatzeko leku erosoak topa daitezke, ura egiteko elurrez hornituak.

Jaitsiera, berriz, konplikatu ez den arren, kontuz ibili beharrekoa da. Kohesio gabeko elurra, rappel ez oso tenteak, destrepeak, harri askeak, glaziarrak eta batik bat nekeak, ardura handia eskatzen digute.

Droites mendia, Aiguille Verte eta Aiguille Talefren arteko mendilerro zorrotzean sortzen den punta bati deitzen diote. Ipar paretak Argentierreko glaziarrera isurtzen ditu bere harri eta izotzak. Hegoaldeak, berriz, Talafreko glaziarrera. Itxura oso desberdina erakusten dute bi aurpegi hauek. Iparralde oso alpinoa da. Pareta tente bat agertzen zaigu begi aurrean, esperientzia handiko mendizaleentzako bakarrik egokia. Izotz eskalada bide oso preziatuak daude. Udazken bukaeran, neguan eta udaberri hasieran aurki ditzakegu baldintza onak igoera hauek burutzeko. Hegoaldeak ez du azaltzen honelako gordintasunik. Bide normal bat bilatzera joango bagina, hego-ertza izango litzateke egokiena. Ipar paretak eskalatutakoan jaisteko erabiltzen duguna. Mendi segurtasun teknikak dominatuz, igoera hau ongi egin genezake.

Igoera hau Klaudio Rey Espinillok eta Mikel Saez de Urabain Gabilondok burutu zuten 2010eko uztailaren 22 eta 23an.